



Aurrekontu
partehartzaileak
2.orr

Gazteria Proiektua
3.orr

Se analizarán los
vertidos en Peña
Lemoa
4.orr

La reparcelación
de San Inazio
tendrá que
esperar
5.orr

Lemoako Memoria
Historikoa
6.orr

Kirol Astea
7.orr

Elkarrizketa / Jabi
Undurraga
8.orr



aurrera
gazteak



Euskararen Nazioarteko Eguna

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu zan euskal hizkuntzaren unibertsaltasuna aldarrikatzeko eguna. Euskara hizkuntza bizia da, baina ahula bere egoera, eta oso kezkarria lurralde batzuetan. Horregatik, Lemoako Udaletik euskara babestu eta bultzatzeko neurriak ezartzen ari gara, baita norbanako eta erakunde guztiei euskara ikasi eta

erabiltzeko bideak errazten ere. Euskarak Euskal Herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza izan behar du: elkarri hitz egiteko, elkar entzuteko eta elkar ulertzeko hizkuntza. Euskara dakieneak ikasi gura duenari irakatsi, ulertzen duenak hitz egiten duenari erabiltzeko aukera eman eta agintariek herritarrei ikasteko bideak erraztu behar dizkio. Denok dugu gure

egitekoa. Euskara denona da, denon eskubidea eta denon ardura. Hori dela eta, Lemoako Udaletik egun horri loturiko egitasmoetan partehartzeko gonbitea egin gura dizuegu, euskara gure herrian dugun ondarea delako eta guztion erantzukizuna eta ardura da hori zaindu eta errespetatzea, baina, batez ere, bizirik iraunaraztea.

Aurrekontu parte-hartzaileak

Lemoako aurrekontu parte-hartzaileen prosezua amaitu da. Egindako hamar bileretatik hainbat proposamen eta ideak jaso dira. Aportazioak dagozkion batzor-

dera bideratuko dira preferentziak eta biabilitateak zehaztu eta aztertzeko. Prosamenen %90 hirigintza arlokoak izan dira: etxebizitza, alokairua, etabar.



www.lemoa.net

Udaletxea / Ayuntamiento

94 631 30 05

94 631 34 59

Bake epaitegia / Juzgado de paz

94 631 25 52

Postetxea / Correos

94 631 40 64

J.B. Eguzkitza Meabe Eskola

94 631 32 28

Liburutegia-Ludoteka / Biblioteca-Ludoteca

94 631 20 64

liburutegialemoa@euskalnet.net

Osasun Kontsulategia / Consultorio Médico

94 631 31 16

Botika / Farmacia

94 631 30 18

Giza-Zerbitzuak / Servicios Sociales

94 631 17 17

Jubilatuena etxea / Club de Jubilados

94 631 41 73

Udal Kiroldegia /

Polideportivo Municipal

94 631 42 97

barriak

Gazteria zure ordua

Kooperantea izan nahi duzu? Alokairuko etxea bilatzeko laguntza behar duzu? Lan aukera desberdinak bilatu nahi dituzu European edo munduan? Elkarteren baten parte hartu nahi duzu?. Galdera guzti hauei eta beste askori erantzuna emateko Lemoako udalak **Gazteria Proiektua** abian jarri du. Ekimen hau 12 eta 27 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago eta bere helburu nagusia gazteen behar izanak asetzear datza. Honetaz gain, gazteei ekintza eta ekimen ezberdinetako programak aurkeztu dituzte, besteak beste **Itzartu programa**. 2013. urtera begira ekimen anitzagoak eskainiko dira: ikastaroak, elkartrukeak, gazte asteburua eta lan munduko ikastaroak, besteak beste.



KONTAKTOA

- Email: gazteria@lemoa.net
- Facebook: Lemoa Itzartu
- Twitter: @Lemoaltzartu
- Tuenti: Lemoako Gaztelekue

GAZTELEKUE

12-16 urte bitarteko gaztetxoek Lemoan elkartu eta buruan dituzten jarduerak eramateko tokia da, hilero antolatzen diren asanbladen bitartez kudeatuko dena eta gazteok buruan dugun bonbila PIZTU hilero balio ezberdinez bustito garelarik, balioetan haziz goazelako aurrera

GUNEAK	MATERIALA
JOLAS GUNEA	Mahai, kale eta kirol jolasak.
MEDIATEKA	Liburuak, dvdak, musika diskak, aldizkariak...
EGONGELA	Aulki erosoekin irakurtzeko edota lasai egoteko tokia.
ORDENAGAILU GUNEA	Ordenagailuak eta WiFi
SORKUNTZA GUNEA	Sorkuntzarako materialak (eskulanak egiteko, antzerkirako, dantzarako...)
INFORMAZIO GUNEA	Hileko programa eta gazteentzako informazio interesgarria.

GAZTELEKUKO ORDUTEGIA

ZAPATUAK	12-14 urte	14-16 urte
	17:00etatik 19.15etara	18.45etatik 21.00etara
DOMEKAK	12-14 urte	14-16 urte

GAZTE BULEGOA

- Aholku zerbitzua: etxebizitza, sexua, lana, formakuntza, elkartegintza, agenda kulturalak, bekak, bidai aukerak...
- Gazte txartelak: gazte txartela, ikasle txartela edota aterpetxe txartela tramitzeko aukera.
- Behar-sarea: Lana bilatzen eta lana eskeintzen duten arteko komunikazioa erraztuko duen tresna da, gure herrian lana euskaraz eta modu duinean lortzeko tresna da. Laster zabalduko dugu web helbidea
- Arreta zerbitzua: astelehenetan 17.00etatik 19.00etara Elizondoko Kulturgunean (hitzordua hartzea komeni da)

ITZARTU

Lemoako gazteen aisialdia indartzeko proiektua da, hilero adin tarte ezberdinei zuzendutako ekintza ezberdinez beteta. **Lemoako gazteen arteko harremanak suspertzeko, gai ezberdinen inguruko lanketak egiteko, hausnartzeko, kritikatzeko, ikasteko, hitz-egiteko, euskara plazara-**

tzeko, kaleak betezeko, ideia berriak sortzeko...

- Hitzaldiak
- Ikastaroak
- Irteerak
- Udalekuak
- Elkartrukeak
- Auzolandegia
- Kontzertuak



Se analizarán la legalidad de los vertidos de Peña Lemoa

Se ha solicitado al Gobierno Vasco un equipo de cromatografía móvil que permitirá establecer la naturaleza de las sustancias que están causando malos olores en el pueblo y el origen la contaminación.

En numerosas ocasiones se detectan olores desagradables en Lemoa. Con objeto de conocer de que sustancias son las responsables, y por lo tanto establecer el foco y/o focos de contaminación de los mismos, se ha solicitado al Gobierno Vasco un equipo de cromatografía móvil que permitirá realizar los análisis oportunos. De este modo, se conocerá la naturaleza de las sustancias que originan los malos olores, se delimitará el origen de la contaminación, y se tomarán las medidas correctoras oportunas.

Al conocer la existencia de un expediente sancionador abierto (por el Gobierno Vasco), por vertidos no autorizados a la empresa explotadora del relleno de Peña Lemoa, se ha estado trabajando en el tema para aclarar la situación y conocer el alcance del asunto. Al Ayuntamiento le compete

procurar también el cumplimiento de la actividad de relleno en el marco de la normativa aplicable, investigando las eventuales irregularidades en que haya podido incurrir la titular concesional. Esta tarea de fiscalización es deseable ejercitarla de forma concordada entre el Gobierno Vasco y el Ayuntamiento, pero al no haber recibido copia ni información de los expedientes, el Consistorio se ve en la obligación de realizar análisis y estudios por nuestra cuenta, para comprobar que realmente la empresa explotadora está depositando en el relleno materiales naturales (para lo cual posee la licencia) y no otro tipo de residuos no autorizados, que además de incumplir la normativa aplicable, pudieran ser perjudiciales para el medio ambiente y/o para la salud de los vecinos de Lemoa. "Lemoa soporta numerosas actividades económicas e industriales con gran impacto en la calidad ambiental de nuestro entorno. Desde el Ayuntamiento tenemos la responsabilidad y el compromiso de asegurarnos que estas actividades se realizan cumpliendo la normativa vigente y con esta premisa estamos tra-

bajando, explica la alcaldesa, Saioa Elejabarrieta

MEDIDORES PARA LA CONTAMINACION DEL AIRE

La contaminación del aire es otro de los parámetros importantes dentro del estado medioambiental. Lemoa cuenta con un medidor fijo de calidad del aire situado en la plaza de las Escuelas de Elizondo. Este medidor envía los datos al Gobierno Vasco y en base a los valores obtenidos se establecen los niveles de calidad del aire en Lemoa. Teniendo en cuenta que las quejas recogidas en el ayuntamiento por contaminación del aire son más numerosas en otros puntos, se ha solicitado un medidor móvil al Departamento de Medioambiente, que realizará mediciones en diferentes zonas de Lemoa. Si los resultados muestran que existe algún punto en Lemoa con niveles superiores de contaminación del aire, se solicitará el traslado del medidor fijo para poder monitorizar de modo más eficiente y exhaustivo la calidad del aire de nuestro municipio.

La reparcelación del sector San Inazio tendrá que esperar

El Plan Parcial de San Inazio que se aprobó en el año 2008 recogía 340 nuevas viviendas. Mediante el Decreto de Alcaldía 46/9 del 22 de abril se aprobó el proyecto de reparcelación. Sin embargo, el proyecto de equidistribución no se inscribió en el registro de la propiedad por no haberse pagado o consignado las indemnizaciones recogidas en el documento urbanístico. Ante la imposibilidad de recaudar la indemnización establecida, el Ayuntamiento de oficio modificó el Plan parcial incrementando el número de viviendas hasta 364 con el ánimo de minorar las cargas

de la Unidad de Ejecución. La modificación planteada ha sido impugnada así como los demás instrumentos urbanísticos que la desarrollan (P.A.U, proyecto reparcelación y proyecto de urbanización). Ante esta dramática situación (la ordenación recogida en el

2008 no inscrita en el registro por las cargas de la unidad de ejecución y la modificación planteada judicializada en los tribunales) el Ayuntamiento no dispone actualmente de las herramientas para desarrollar la vivienda pública de San Inazio.

El Ayuntamiento no tiene herramientas para hacer VPO





Ezin da ahaztu!

Lemoako udalak bultzatuta, Lemoako Memoria Historikoa berreskuratzekeo proiektua jarriko da martxan herrian 2013ko urtarrilean. 1937. urteko maiatza eta ekaina artean, Lemoatxen guda latza izan zen gudari eta errepublikanoen eta altxatuen artean. Lemoatx gune estratetikoko garrantzitsua izan zen, Bilbo eta bere inguruak babesten zituen Burdinezko Gerrikoaren ertzean kokatuta baitzegoen. Hainbat egunetako guda izan zen bertan (bonbardaketak barne) eta bando

bietako hildakoak asko izan ziren. Gertakari hauek Lemoako historiaren atal garrantzitsuenetako bat dira, herritarrek ezagutu beharrekoak eta batez ere ahaztuak izan behar ez direnak. Lemoatxeko Memoria Historikoaren proiektuaren helburua, ikuspegi historikotik egun haietan Lemoan gerta-



tutakoaren inguruko informazioa batu eta herrian ezagutzera ematea da. Horretarako, lemoaztar guztiei proiektuan aktiboki parte hartzeko deia

egiten zaie, proiektua aurrera eramateko herritar guztien kolaborazioa ezinbestekoa baita. Horretarako urtarrilaren 24ean arratsaldeko 19:00etan jubilatuen gaineko aretoan egingo den batzarrera gonbidatu nahi dugu herritar oro. Etorri eta parte hartu!!.



Lemoako memoria historikoa berreskuratzekeo proiektua

Kirol Astea 2012



TARIFAS DEL POLIDEPORTIVO

Las cuotas del 2013 no sufrirán ningún cambio con respecto al año anterior.

DESCRIPCIÓN DEL ABONO

DESCRIPCIÓN DEL ABONO	BONO ANUAL
Familiar residente	115,85 €
Familiar residente en paro	57,90 €
Individual residente	75,45 €
Familiar no residente	154,80 €
Individual no residente	100,45 €
Individual residente menor de 19 años o en paro	38,35 €
Jubilados	38,35 €

Si algún socia/o desea hacer algún cambio (darse de baja, cambio de cuota...) puede llamar al 946314297 o acudir a las instalaciones del polideportivo. El cobro de las cuotas del 2013 se realizara el día 7 de enero.





Elkarrizketa



Jabi Undurraga Lemoako Kamara Korala

“Ahotsak eskatu egin doguz”

Zein da elkartearen historia

Ahots mistoen abesbatza 1951. urtean sortu zen. Kultur jarduera ugari jarri ditu abian zenbait lekuetan. BAEk antolatutako kontzertuetan (Udaberriko kontzertuak, Abesbatzen eguean...) Ezkontzetan, Begoñako hamabostaldi kulturean... parte hartu du azken urteotan eta beste ekitaldi batzuetan ere.

Urte batzuk abestu barik egon ondoren, 1999. urtearen amaieran garai berri bati hasiera eman zion. Gaur egun, 15 ahots mistok osatzen dute abesbatza Natxo eginguren zuzendaria delarik.

Zenbat ekitaldi egiten dozuez urtean zehar?

5 edo 6 ekitaldi egiten dira urtero, Udaberriko Kontzertuak, Abesbatzen

eguna, San Inazio eguna, gabonetan...

Non abestu dozue?

Udaberriko kontzertuetan eta Abesbatz egunean abesteari esker, Bizkaiko eta inguruetako hainbat herri ezagutu ditugu, Sopelana, Muskiz, Meñaka, Mungia, Gordexola, Bakio, Busturia, Karrantza, Villarcayo, Villasana de Mena, Kuzkurrita del río Tirónen, bestea askoren artean.

Zein da zure erreperitorio gustokoena? Eta Zailena?

Erreperitorioa gustokoa izateko musika klasikotik gaur egungo musikarainoko lanak eduki behar dauz. Zailena... hori zaila da esateko; Atzerriko hizkuntzetan idatzitako obrak izaten dira zailak, ahosketa arazoak direla medio.

Lemoan badago musikarako sensibilitatea?

Egon badago... baina ez gura dogun horrenbeste

Zaila da jendea elkartzea ensaioak egiteko? Nola antolatzen zarie?

Astean birritan egiten doguz saioak. Martitzen eta eguenetan 19:30etan. Inor animatzen bada, datorrela Elizondoko Kultur Gunera.

Aurrera eraman dozuez hainbat ekimen: eskola, kantu poteo...

Bai, horrela da. San Inazio egunean Durundi Barri Dantza taldeagaz bat egiten dogu ekitaldia. Martxoatik ekaineraino Udaberriko Kontzertuak egiten dira be...

Gaztetxoak animatzen dira abestera?

Egia esateko, ez gaztetxoak ezta nagusitxoak... Ahotsak eskatu egin doguz hainbatetan, baina orain arte erantzunik ez!

